

## 6.BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko, gure lokalean egon ondoren edo gure webgnutetik harremanetan jarri ondoren, emailez galdetegi bat bidaliko diegu, honetan zer nolako ebentua nahi duten, haien aurrekontua, haien zaletasunak, gorroto dituzten gauzak, ze motako publikorako(umeak, nerabeak, helduak,...) izango da ebentua, bidaia edo ospakizuna,... hau da, bezeroak guk ahalik eta hoberen antolatzeko behar dugun guztia adieraziko du.

Bezeroen-arreta zerbitzua ere edukiko dugu bertan, haien zalantzak, kezak, proposamenak eta sugerentziak kontutan hartzeko. Honen bidez ebentua antolatzeko ia pauso guztietan jakingo dute nola dauden gauzak eta aldaketa bat egin nahi badute aukera izango dute.

Ebentuan bertan ere izango dute gure enpresako pertsonaren bat haien eskura, zerbait behar denean laguntzeko. Honek gure zerbitzua iragartzen laguntzen gaitu.

Aukeratutako zerbitzua bidaia bat bada, bezeroak enpresako gidari bat izango du haren eskura, hura eraman eta aireportutik ekartzeko, hala eskatzen zaionean. Bidaia Espainia barruan bada, ordea, gidaria haiekin joango da (baina bere bizitza han egingo du, bezeroei inolako etenik egin gabe) eta behar den lekura eramango ditu.

Gure bezeroen esperientzia bukatu ondoren, email bat bidaliko diegu, gure lanaren feedback bat jasotzeko, etorkizuneko bezeroen esperientzia hobetzeko iradokizun bat egin nahi badute, gustatu ez zaien zerbait egon den edo, besterik gabe, gurekin esperientzia ona izan duten esateko.